

"TEKNIKARI ESPEZIALISTA (MEKANIKA -III. TALDEA)" LAN POLTSA ZABALTZEKO HAUTAKETA PROZESUA. 2016ko OTSAILAREN 19ko GERENTEAREN ERABAKIA LEHENENGO ARIKETA: DATA ETA LEKUA.

Deialdiaren seigarren eta zortzigarren oinarrietan jasotakoarekin bat (UPV/EHUko gerentearen 2016ko otsailaren 19ko erabakia), "Teknikari espezialista (Mekanika -III. Taldea)" lan-poltsa zabaltzeko hautaketa-prozesuko epaimahaia honako hau iragarri du:

LEHENENGOA.- Hautaketa-prozesuko lehenengo ariketa, deialdiaren seigarren oinarriko 6.1 atalean zehaztuta dagoena, **2016ko urriaren 14an** izango da (ostirala). **16:00etan** hasiko da azterketa. Lekua: Bilboko Ingeniaritza eskola, **P3C7, P3C4A eta P3G3 gelak, 3. Solairuan, A eraikina (sarrera Luis Briñas kaletik).**

BIGARRENA.- Probaren zehaztasunak honako hauek dira:

- Aukera anitzeko erantzunak izango dituzten 50 galdera teorikoak (gehi erreserbako 5) erantzun beharko dira idatziz.
- Ez da zigorrik izango oker erantzuteagatik edo galderaren bati ez erantzuteagatik.
- **Iraupena:** Ordu batekoa izango da.

Gogoan izan behar da azterketara nortasun agiria (NAN), pasaportea edo gidabaimena eraman behar dela (seigarren oinarriko 6.1.5. atala).

Leioa, 2016ko irailaren 14a

Epaimahaiko idazkaria



Eneko Ukar Arrien